

DROGETEN

ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 297. zenbakia. 2021eko otsaila



**Felipe Sahagún,
erretiroari egurra**



Birus guztiak ez dira txarrak... kutsatu zaitez!

Izen-abizenak Helbidea

Telefonoa Posta elektronikoa..... NAN

Jaiotze-data K/K zenbakia



Euskal Birusa Euskara Elkartea
Erdikokale zeharbidea 2, 1.
943 17 93 50 / 688 63 28 74
euskalbirusa@gmail.com

NORK	EKARPENA URTEAN
18 urtetik beherakoak	10 €
Ikasle / jubilatu / langabetuak	20 €
Langileak	35 €

ATE IREKI BIRTUALA MARTXOAK 17 18:00

**info gehiago, gure
webgune eta sare
sozialetan!**



www.armeriaeskola.eus

“Mende bat biharrian”



**NAZIOARTEKOTZA
AUKERAK_**
Europa/Mundurako bekak
Zikloak ingelesez



**METODOLOGIA
BERRITZAILEAK_**
Erronketan oinarritutako
talde lana



ESKAINNTZA ZABALA
Erdi eta goi mailako zikloak,
espezializazioak



**GERTUKO
HARREMANA eta
ORIENTAZIO
PROFESIONALA**



**LAN AUKERA
ZABALA_**
Enpresa harreman estua



LAN POLTSA
Langile teknikoen beharra



ArmeriaEskola^x

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Estibalitz González,
Asier Ibaibarriaga
Jon Saez,
Libe Solozabal,
Dorleta Vidal
eta Irati Yarza.

**KOORDINAZIOA
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Dorleta Vidal.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Valentín Mugarza eta
San Pelayo Eskola.

ARGAZKIAK:

Maite Álvarez,
Mariarro Arrizabalaga,
Julene Bouzo,
Estibalitz González,
Valentín Mugarza,
Kevin Novoa,
San Pelayo Eskola
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ayoub Hdidou
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Gaia: aratusteak

Elorrixotik

(Entzuteko: www.alboka.es)

Elorrixotik etorri jakun
mutil bat kuriosua,
hartz jantzitxa
hamen daukau
Pepito ideltserua.
¡María, no quiero!
¡María, no quiero!
Batzen badou
erangou gero!



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Kevin Novoa (Polonia)	ZAHARRAK BERRI.....16 Mariarro Arrizabalaga
ELKARRIZKETA5-7 Maite Álvarez ikertzailea	ESKOLEN TXOKOA.....17 San Pelayo Ikastetxeko berriak
MALLABIAN ZER?8-9 Idiazabaldarrak Mallabian	IRITZIA18 Aberria
ERREPORTAJEA10-11 Matilde Isasi-lsasmendi emagina	BOTEPRONTOAN19 Izaskun Txurruka
MOTZEAN12 Henar Echeverria Goya Sarietan	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER?14 Felipe Sahagún artisaua	ZORION-AGURRAK21 Saldu, erosi edo agurtu
KIROLZALE.....15 Julene Bouzo atleta	MARTXOKO AGENDA .22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kevin Novoa

Duela lau urte Erasmuseko praktikak egitera joan zen hiru hilabeterako Poznanera (Polonia), baina beka bat eskuratu eta estantzia urtebete gehiago luzatzea lortu zuen. Ondoren, Hungariara egin zuen jauzi, boluntariotza beka batekin, urtebetez geratzeko. Orain bi urte pasatxo daramatza Poloniako hiriburuan.

- *Etiket irtetea erabaki erraza izan zen?*

Nahiko argi neukan denboraldi bat kanpoan bizi nahi nuela. Azaltzeko zaila den sentsazio hori neukan, gorputzak gauza berriak ikusteko eta esploratzeko eskatzen zidan. Ermuan pixka bat *estankatuta* egon nintzen, zeozer falta zitzaidala sentitzen nuen. Gainera, hemen lan aukera gehiago daude, eta zorte handia izan dut beka eskuratzeko. Oraindik neure buruari azaldu ezin diodan zerbait da.

- *Nolakoa da zure egun arrunt bat?*

Estatu Batuetako multinazional batentzat egiten dut lan. Oraingo egoera dela eta etiketik nabil lanean.

- *Herrialdea espero zenuen bezalakoa da?*

Zerbaitek eman dizu arreta bereziki?

Herrialdera oso ondo egokitu nintzen, eta harrigarria da, bi kultura oso ezberdin direlako. Jendearekin ere, poloniarrekin, oso ondo moldatu naiz. Baina ezberdintasun handia dago klimari, tradizioei, bizi estiloari eta gastronomiari dagokienez. Nire bikotekidea bertakoa da eta horrek lagundu dit tradizioak gertutik ezagutzen. Bestalde, topekadarik handiena, eta lau urte pasata oraindik kostatzen zaidana, negu luzeak dira. Argi ordu gutxi daude eta latza da, nahiz eta dagoeneko egunak luzatzen doazen eta igartzen da. Orain egunean zehar egiten dut lan etiketik, baina lehen bulegora sartzen nintzenean gaua zen, eta gauetz irteten nintzen. Buruarentzat gogo-

rra da, eta asteburua heldu eta neke bikoitza da. Argia ez ikustean gorputzak bitaminak eskatzen dizkizu.

- *Zein hizkuntzatan egiten da bertan? Ondo moldatzen zara?*

Lanean ingelesez egiten dut guztia, eta poloniera gutxi gorabehera menperatzen dut. Oso hizkuntza zaila da, baina orain elkarrizketa abstraktuagoak eduki ditzaket. Saiatu naiz bertakoekin harremana izaten, hizkuntza bat ikasteko modua delako. Lagun poloniar asko ditut eta horrek laguntzen du. Gainera haiei gustatzen zaie, badakitelako hizkuntza zaila dela, eta ilusioa egiten die saiatzen garen atzeritarrokin aritzea.

- *Noiz egon zara Ermuan azkeneko aldiz?*

Aurreko udan egon nintzen, hilabetez. Zortea izan nuen, etiketik lan egiten nuelako. Normalean urtean aste bat edo bi joaten naiz gehienez, oportetan bidaiatzea ere asko gustatzen zaidalako.

- *Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?*

Zaila da erantzutea. Bueltatzearen oztopo bat krisia da, zaila da ganorazko lan bat topatzea. Hemen aukera asko daude eta herrialdea hazten ari da. Epe laburrera badakit ez naizela joango, baina gerora agian. Ez dut baztertzen beste herrialde batera bizitzera joatea.

Libe Solozabal



Kevin Novoa Varsoviako Real Lazienki parkean. Atzean, Uraren gaineko Jauregia.



SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

**AMAIA
HARATEGIA**

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

AIZ

**AIZ
Garraioak, S.L.**

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



2016ko apirilaren 16an, Millennium Fellowship in Lymphoma Research saria jaso zuen Maite Álvarezek. American Association of Cancer Research (AACR) elkarteak eman zion sari hau, elkarteko lehendakaria zen José Baselgaren eta Takeda Oncology konpainiako Howard Fertig medikuen eskuetatik.

Maite Álvarez, ikertzailea:

“Ikertzaileok etengabeko presioa pairatzen dugu”

Maite Álvarez (Ermua, 1982) Biologian lizentziatu zen 2005ean, eta Genetika eta Biologia Molekularra Masterra burutu zuen 2007an. Urte berean University Studies Abroad Consortiumeko beka lortu, eta Reno Nevadako Unibertsitatera joan zen lanera urtebeterako, baina 10 urte eta erdi eman ditu Estatu Batuetan. Horietatik 4 urte Sacramentoko UC Davis Unibertsitatean (Kalifornian) igaro ditu, doktorego-tesia egiten; gainontzekoak Standfordeko Unibertsitatean (Kalifornian ere bai), eta bertan burutu ditu doktoratu osteko lanak. 2018ko urtarrilean Euskal Herrira bueltatu zen, eta ordutik Nafarroako Unibertsitateko CIMA ikerketa zentroan egiten du lan. Minbiziaren immunologiaren alorrean jardun izan du beti, eta *Natural Killer* zelulak dira zehazki bere ikerlanaren ardatz.

- Urtebeterako joan zinen AEBetara, baina zure egonaldiak hamarkada osoa irau zuen. Zer dela-eta?

Bueltatzeko asmoa izan dut beti, baina hemen oso lan aukera gutxi nituen. Beraz, Reno Nevadako Unibertsitatean urtebete egon eta gero, Davis Kaliforniako Unibertsitatean tesia egitea eskaini zidatenean, ezin izan nuen ezetzik esan. Tesia bukatuta, 2012. eta 2013. urteen bueltan, Espainian kontaktuak egiten hasi nintzen, baina krisiaren eraginez ez zidaten lana ziurtatzen. Orduan Standforden lan egiteko aukera sortu zitzaidan. Ospe handiko unibertsitatea da, eta hezurmuineko transplantean lan egiten duen munduko talderik indartsuenetariko bat dauka. Bost urte eman nituen bertan, eta kontratua luzatzeko aukera izan nuen, baina bueltatu nahi nuen. 2015ean eta 2016an egindako kontaktuekin jarri nintzen berriro harremanetan, kasualitatez AEBetan elkar ezagutu genuen jardunaldi batzuetan, eta lauzpabost beka eskatu genituen. Horien arteko onena lortu nuen: Marie Curie Action Fellowship beka, 2 urteko iraupenarekin.

- Zergatik bueltatzeko premia hori?

Konturatu nintzen 10 urteetan familian gertatu ziren gauza onak galdu nituela,

baina batez ere min izugarria eman zidan momentu txarretan ezin egoteak. Gainera, AEBetan dauden atzeritarrek esaten dute 10 urteen marra gorria igarotzen duzunean, ez dagoela atzera bueltarik. Hamarkada betetzear nengoen, eta bueltatzeko beharra sentitu nuen.

- Orduan hasi zinen Iruñako CIMA ikerketa zentroan?

Bai, eta Marie Curie beka hura bukatutakoan, Minbi-ziaren Aurkako Espainiako Elkarteko (AECC) beka lortu nuen. Horrekin dihardut orain.

- Herrialdez aldatzean, lan esparrua ere aldatu behar izan duzu?

Apur bat. AEBetan minbi-ziaren immunologian aritzen nintzen; zehatz-mehatz hezurmuinaren transplantean minbizi hematologikoei, linfomei eta leuzemiei bideratuta. Gaixotasun horien aurka oso eraginkorrak diren *Natural Killer (NK) Cells* edo Zelula Hiltzaileetan espezializatu nintzen. Hemen minbizi solidoetan egiten dut lan, hematologikoetan izan beharrean, baina zelula lerro berdinarekin.

- Lan egiteko modua ezberdina da?

Ez. Joan nintzen garaian agian ezberdintasun gehiago zeuden, orain ez horrenbeste. Hemen gauzak ondo egi-



Maite Álvarez, eskuman, tesiaren graduazio egunean (2013ko ekainean), UC Davisen bere ikaskidea izan zen Gail Sckisel doktorearekin.

ten ari dira, baina oso diru gutxi dago, eta dena da oso garestia: probak, materiala, aparatuak... Eta zure ikerketaren emaitza daukazun diruaren arabera da.

- Nola azalduko zenuke hitz lauekin zertan ikeritzen ari zaren egun?

Ahalegintzen ari gara zelula immuneak minbizia duten zelulak erasotzen. Orain arte, erradioterapia eta kimioterapia erabili izan dira minbi-ziaren aurka, baina tratamendu horiek oso bortitzak dira, eta zelula immuneak ere hiltzen dituzte. Zelula immune horiek aprobe-tatzeko asmoa dugu, hobetu eta indartu. Hain zuzen ere, NK eta zelula dendritikoekin gabiltza lanean, tumorean zuzenean duten eragina aztertzen.

- Zure ikerketen helburua minbizia sendatzea da?

Mundua perfektua balitz, hala izango litzateke. Baina ikerketaren mundua oso lehiakorra da, ez dago denontzako dirurik, eta aurrera egitea zaila da. Bekak banatzerako orduan, ikertzaileen eraginkortasuna izaten da kontuan, eta hori neurtzeko

irizpide ezberdinak ezarri dituzte: lortutako sariak, zientzia aldizkarietan zure proiektuak argitaratu diren... Hortaz, gure ahaleginak horretara bideratzen ditugu guztiok: sariak, argitalpenak eta bekak lortzera. Gauzak horrela, batzuetan galdu egiten da minbizia sendatzen lagundu dezakeen zerbait aurkitzeko ilusia.

- Ikerkuntza frustragarria da?

Bai, zure etorkizun profesionala guztiz lotuta dagoelako esku artean duzun proiektuaren emaitzei. Eten-gabeko presioa duzu, proiektua bikaina izan behar delako, berritzailea, interesgarria, aplikagarria, eta gainera aldizkari espezializatuetan jasota egon behar da.

- Egon da azken urteetan aurrerakuntza nabarmenik minbizia sendatzeko?

Bai, *immune checkpoint inhibitors* molekulen ikerketak iraultza ekarri du immunoterapiaren esparrura, eta oso emaitza positiboak ditu melanomengan. Bestalde, duela gutxi, genetikoki eraldatutako CAR T zelulen terapiak ere onura handiak

“Azken urteotan molekulen ikerketak iraultza ekarri du immunoterapiaren esparrura”



Drogeteniturrri, 297 zk.

Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**OSASUNA · ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 · Goienkale 12

ekarri ditu, batez ere minbizi hematologikoetan, baina hobetu beharra dago.

- Ikerketa guztiak minbiziaren sendaketara bideratuta daude, edo prebentzioan ere ikertzen da?

Guk sendaketan dihardugu, baina prebentzioak berebiziko garrantzia da. Tumoreak detektatzeko *screening* teknikan sekulako aurrerapausoak ematen ari dira, eta minbizi oso hasierako faseetan antzeman dezakete. Fase horietan tratamenduak ez dira hain bortitzak, sendatze-tasak altuak dira eta birgaitze-tasak, aldiz, baxuak. Aitzitik, tumorea jada gorputzean zabaldua dagoenean, ia ezinezkoa da atzera bueltzea.

- Osakidetzak aipatutako prebentzio-probak egiten ditu?

Bai, horren adibide dira koloneko eta bularreko minbizi antzemateko programak, adin jakin batetik aurrera egiten direnak. Ez nago gaian oso jantzita, baina badaude ere analisi genetikoa minbizi mota jakin batzuk jasateko probabilitateak aztertzen dituztenak.

- Nola liteke COVID-19aren aurkako txertoa urtebetean prest egotea, eta minbizi sendatzeko biderik ez egotea?

Alde batetik, koronabirusa mundu mailako pandemia da, eta presioa sekulakoa izan da. Txerto bat gartzeko ohiko mekanismoak

“Berdintasunetik argi-urteetara gaude oraindik”

alde batera utzi dira. Izan ere txertoaren efikaziaren gaineko zalantzak ditut, entsegu gutxi egin direlako. Bigarrenik, aipatuko nuke txerto hau aurretik zeuden beste txerto batzuetan oinarritu dela. Eta hirugarren hanka inbertsioa da: dirutza inbertitu da, interes ekonomiko handiak daudelako, eta zenbait enpresa farmazeutiko aberastuko dira. Beraz, esku artean zeukaten guztia alde batera utzi dute txertoa sortzeko. Gainera birusa bakarra da, sintoma ezberdinekin, baina bakarra. Minbiziak hitz egiten denean, azpimarratu behar da hamaika minbizi mota daudela. Ohikoenetarako tratamenduak badaude, edo ikertzen ari da (koloneko minbizi, bularrekoa, biriketakoa eta melanomak), baina intzidentzia txikia duten minbizek ez daukate ia tratamendurik, ez dagoelako interes ekonomikorik. Gainera, hamaika bide aztertu daitezke (zelulak, molekulak...). Entsegu klinikoei dagokienez, gure

tratamenduak probatzen dituztenek aurretik beste tratamendu batzuk probatu dituzte, ez direnak eraginkorrak izan. Hori dela eta, minbizi erasokorren aurrean gaude, eta horiek sendatzea oso zaila da.

- Otsailaren 11n Emakume Zientzialarien Eguna ospatu zen. Nolako da emakumearen egoera ikerkuntzan?

Zientzietako karreretan emakumeak gara gehienak, baina ikerkuntza zentroetako goi kargudunak gizonak dira. Momentu batean familiarren eta lanaren artean aukeratu behar duzu, eta emakume zientzialariok beti daude gaizki ikusita: tekniko bezala lan egiteko hautua egiten badugu, etxekoekin denbora gehiago igaro ahal izateko, txarto; lanaren aldeko apustua egiten badugu ere kritikatzeko gaituzte. Onartu dezagun: aurrerapauso handiak eman diren arren, gizarte matxistan bizi gara oraindik ere. Berdintasunetik argi-urteetara.

Dorleta Vidal



Maite Álvarez, ezkerrean, CIMA zentroan, Myriam Fernández ikaslearekin.

uriarte asesores ✓
Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza
Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

ARKITEKTURA ESTUDIOA
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI
www.spara.es
info@spara.es
Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia 943 17 70 57

ZK
ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

RIF
ITURGINTZA KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

Idurre Galarraga, Estitxu Imaz eta Estibalitz Katarain, idiazabaldarrak Mallabian:

“Hemengoentzako kanpotarrak gara, hangoentzako ere bai”

1989ko udan, Mallabiko eta Idiazabalgo koadrila banak Urbasako mendilerroan topo egin zuten. Hamaika herritako jaietara elkarrekin joan eta gero, lagun arteko adiskidetasuna sendotzen joan zen, eta bikote-harremanak sortu. Bide ezberdinak jarraituta, Idiazabalgo hiru gazte Mallabira etorri ziren.

Idurre Galarragaren, Estibalitz Katarainen eta Estitxu Imazen bidaiek Urbasako kanpaldi batean dute abiapuntua, baina bakoitzak modu ezberdin batean egin zuen Goierritik Mallabirainoko ibilbidea. Idurre lehena izan zen. 1998an etorri zen Mallabira eta bizilekua aldatzeko erabakia oso pixkanaka hartu zuela gogoratzen du: senarraren familiaren jatetxean hasi zen lanean asteburuetan, gero Mallabira bizitzera etorri, lan ezberdinetan jardun... “Nahi eta nahi ez finkatzen joan nintzen”, dio Galarragak.

Estibalitz Katarainek, ordea, ez ditu hain oroitzapen goxoak. Idiazabalen ekin

zation bikote-bizitzari. Zazpi urtez bizi izan ziren bertan, eta alaba nagusia han jaio zen, baina 2006an Mallabira etorri ziren, etxebizitza arrazoi nagusia izanik. Onartzen du ez zela erabaki erraza izan: Musika eskola batean egiten zuen lan, musika-hizkuntza eta akordeoiko irakasle gisa, eta Mallabian bizita eta ume batekin, ezinezkoa zitzaion 45 minututara zegoen lanari eustea. “Kostata”, urte dezenteko lana utzi, eta Mallabira abiatu zen familiarekin.

Azkenik, Estitxu Imazek 8 urte daramatza Mallabian, 2012tik. Estibalitzen ezkontzan lekukoetako bat izan zen; gerora bere senarra izango zena, aldiz, haiek ez-



Ezkerretik hasita: Idurre Galarraga, Estibalitz Katarain eta Estitxu Imaz.

kondu zituen zinegotzia. Aspaldi ezagutu arren, orduan berreskuratu zuten harremana, eta hilabete luzez aurrera eta atzera ibili eta gero, Estitxu Mallabira herriz aldatu zen. “Erabakia hartu nuenean Estibalitz eta Idurre baino nagusiagoa nintzen, eta beharrezkoa zitzaidan erabaki batzuk hartzea, beraz, modu oso naturalean egin nuen. Gainera beste babes batekin etorri nintzen, Estibalitz eta Idurre hemen zeudelako jada”. Horiek horrela, kazetari lana utzi, eta beste lan bat topatu zuen.

- *Herri bezala, zeintzuk dira alderik handienak Idiazabal eta Mallabia artean?*

Estitxu Imaz: Idiazabalek 2.300 bat biztanle ditu eta Mallabiak 1.200 inguru, bai-

na hango herrigunea askoz handiagoa da, honen bikoitza. Gainera oso laua da, ez-paloi oso zabalak ditu, zuhaitzez beteta dago, igerilekua dauka, zerbitzu ugari, denda dezente, banketxe pare bat... Mallabian, herriaren beraren egitura deserosoagoa da, aldapaz josita.

- *Zeren falta sumatzen duzue gehien?*

Idurre Galarraga: Familiarena, zalantzarik gabe. Lagunen kasuan... tira, hemen ere baditugu lagunak, eta senarren koadrilak ere.

Estibalitz Katarain: Gainera, ni behintzat Idiazabalera bueltatzen naizenean konturatzten naiz hango lagunak ere euren bizimodua egin dutela urte hauetan, beste lotura batzuk egin dituztela, eta harremana nolabait galdu egin dela.

“Ustez herri euskaldun batera gentozen, baina errealitatea oso bestelakoa da”



Drogeteniturrri, 297 zk.



- Sarritan joaten zarete Idiazabalera?

E. I.: Koronabirusaren eraginez, aurten oso zaila izan da bisitan joatea. Nik urtebete pasatxo duen iloba daukat, eta oso gutxitan hartu dut besoetan. Horrez gain, gogoan daukat ni Idiazabalen bizi nintzenean eta Estibalitz Mallabian, esaten zidala Idiazabalera bueltatzen zenean arrotz sentitzen zela. Ez nuen sinisten, baina hala da! Hemengoentzako kanpotarrak gara eta dagoeneko hangoentzako ere bai.

- Ohiturei dagokienez, bada Mallabian zerbait harritu zaituztenik?

E. K.: Nik hemen jan nien barraskiloak lehen aldiz, esaterako, ez nuen ohitura hori ezagutzen. Horrez gain, hizkuntzak harritu ninduen. Hona etorri baino lehen bizimodua erabat euskaraz egiten nuen, eta hona etortzean, benetan harritu ninduen ikusteak euskaraz

dakien jende askok ez duela euskaraz hitz egiten.

E. I.: Ni ere ustez herri euskaldun batera nentorren, eta errealitatea oso bestelakoa da, batez ere azken urte hauetan, kanpoko jende asko etorri baita Mallabira bizitzera (eta ez naiz immigrazioaz ari). Askotan nire semeak gazteleraz hitz egiten dit! Duela 20 urte baten batek horrelakorik galdetuz gero, ezinezkoa litzatekeela esango nioke.

- Horrez gain, hemengo euskara eta zuena oso ezberdina da, esamolde, aditz zein ahoskerari dagokienez...

I. G.: Bai, "zerrau bentanie" bezalakoak entzutean, ezin genuen sinetsi! Bestalde, nire kasuan batez ere, euskara egokitzen joan naiz. Jendearen arretan egiten dut lan, eta hemengoek ni ulertzeko euren euskaraz azaldu behar dizkiet gauzak. Koinatak beti esaten dit oso euskara polita dugula, eta



pena dela galtzea...

E. K.: Nik uste dut ezberdinak direla, ez politak ez itsusiak. Eta hobe dela zurea egokitzea, gazteleraz hitz egitea baino. Dena den, uste dut hirurok erabiltzen ditugula hemengo hitz solte batzuk, nahi eta nahi ez.


E. I.: Nik gutxi batzuk agian bai, baina nagusiagoa nintzela etorri nintzen hona,

eta ez dut uste niregan hain eragin handia izan denik. Horren harira, behin lagun batek esan zidan ez nuela oso "z" markatua, eta harritu ninduen. Izan ere, saiatzen naiz semeari erakusten "s"ren eta "z"ren artean bereizten, baina tira..., baliteke bizkaiera niregan ere eragina izaten hasi izana.

Dorleta Vidal

FEREDU

SOLUTIONS S.L.



- * HEZETASUNAK
- * ERREHABILITAZIOA
- * INPERMEABILIZAZIOAK
- * MANTENIMENDUAK
- * IGOGAILUAK
- * ERREFORMAK
- * FATXADAK
- * ITE
- * TEILATUAK
- * GARBIKETAK

www.feredusolutions.com
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

Matilde Isasi-Isasmendi, emagina:

“Umia jaioxotzen ikustia zoragarria da!” (II)

Ermua eta Mallabixan zenbait urtez andrei erditzen laguntzen ibillitxako Ezkerra tabernako alaba honen gogorapenen haritxik, ezagutzen jarraitxuko dogu komadronean zan sasoiko haurdunaldixak, erditziak...

Haurdun geratzeko bedar edo janari berezirik hartzen zanik ez daka entzunda Matildek, baiña kontau doskunez “umia galtzeko kriston disparatiak eitxen zitxuen emakume batzuk, sukaldeko txapatik salto ein, eskilaretan behera euren buruak bota... Perejila sartzen zebela be entzunda dakat, baiña ez dakit efektibuak ziran edo ez. Behiobehin umia galtzeko laguntasuna be eskatu zostien, baiña ezin neban, ez nekan ez instrumentalik ez esperientziarik, eta nire lana partuak ziran”.

Nahi ez eta umedun gelditxutako andren sufrikarixua be bizi izandakua da Matilde. Umia aldian izan eta ezkutan pasatzeko eitxen zitxuezen ahaleginak ahaztu barik dakaz. “Nik esaten noztien: tapauko dozu, baiña hau derrigorrez agertuko da. Euren ardura haundiña zan zelan esan gurasuei”. Ama solterak itxuria etxian eta batez be euren amekin eukitzen zeben arazo gehixen,

honek nahi ez onartu egoeria, ez jaixo barrixa... Horregaitxik uste dau “gaur egunian graziaz ez jako horrenbesteko garrantzirik emoten, horretan asko aurreratu gara, onerako, batez be emakumiandako”.

Instrumentala eskura

Partua asistitzeko bata zurixa janzen zeban beti eta berakin eruaten zeban baitxa ezinbesteko zekan maletatxoa, tresneria guztiakin. Han juaten ziran “suturak eitxeko pintzak, artazixak, orratzak eta harixa episiotomia ein ostian zabalduakua josteko, estetoskopioa umia entzun eta jakiteko gorago edo beharago nun zeuan eta buruz baetoren ala ez, guantiak esplorazio bajinala eitxeko, botikak, jeringillak... Egosi ein bihar izaten genduzan; harixa eta orratzak esterilizauta etortzen zian euren kajatxuetan, baiña beste danak sartu lapiko baten eta irakitzen eukitzen genduan. Aillegau etxe bate-



Matilde Isasi-Isasmendi gaztetan.

ra eta haxe izaten zan lehenengo eskakizuna: lapiko bat irakitzen ipintzia instrumentaltantzako”.

Erditxu ostian plazentiakin zer eitxen zan galdetuta, aitxatzen doskunez “bota eitxen zan: herriko etxietan lohietara eta basarrietan simaur tartian; gaur egunian utilidadia topau jakue eta gauza desberdinetarako erabiltzen da”. Partuan ume baxtuen heriotzia bizi izan ze-

ban arren, amarenik bat bez, bere berbetan “zorionez!”. Baiña esturasun banaka batzuk pasautakua bai da, “partua gaiztotu eta andrak ospitxalera eruan bihar. Basarri batetik etarata nago andra bat Trabakuko bidera, ez kotxerik ez ezer, ipiñi manta bat eskillara baten, gaiñian etzun andria eta aurre eta atze lau gizonen artian eskillariari oratuta kamiñura altxau, klinikara eruateko”.



URRETA

burdindenda

* <i>Etxea</i>	* <i>Giltzak</i>
* <i>Tresneria</i>	* <i>Sarrailaigintza</i>
* <i>Brikolajea</i>	* <i>Kit altzariak</i>
* <i>Erailak</i>	

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

KRABI

Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Erditxu osteko lehelengo egunetan ez zan jateko gogo askorik egoten, partuak orduan gogorrek izaten zirala: dilataziñuan orduak, bultza eitxen, lo ein barik, indarge... Azkenian, umia jaixo dala eta deskantsu ederra! Ama einbarririk daretik eta normal jan bihar dabela-eta, Matildek gogoan daka zer esaten zotsan aitxaginarrebak, Jose Fuldainek, Elantxoben sendagile izandakua eta partuak be asistitzen zitxuanak: "Nik andrei esaten dotsiet saldia hartu deixala gizonak eta eurak oillua jan!".


Gero izaten zan titixa hartziana. Matildereren gomutaz "ume batzuk ez zebe nahi izaten hartzerik eta harek izaten zirari arazuak! Gogortuta badago, kosta eitxen jako tiratzia; gosiakin eta ezin, amorratuta, nahi dau eta hasarre eta ezin...! Umia engaiñau ein bihar titixari oratu deixon. Ene, zertzuk! Ura eta azukre nahiz eztixakin busti titipuntia eta eutsi umiari probau deixon...! Gerora etorri zirari titixa emotia atzerakoia zala, amaren esniak ez zebala balixozertarako... eta biberoiak lehelengo egunetik! Oin, ostera, lehengora bueltau gara. Ordu bitik ordu bira emoteko pazientzia haundixa bihar da,

egun guztia umia tititik txintxilizka! Andrak onartuta zeken holan zala eta 'Zer eingo dotsagu?' esanda, aurrera! Gizonak gero ez zebe ezertan laguntzen; nire garaian, umiak amanak ziran eta gizonen ardua bakarra etxera dirua ekartzia zan. Gabaz zein egunez, amana zan umiaren zainketia".

Jaixobarrizan bataiua orduko denporetan "egunian bertan edo gitxira izaten zan eta faldoi luziekin eruaten ziran umiok elizara, puntilla dotoriekin, pintxo-pintxo. Bataiatu barik hildako umiak kanposantuan aparte lurperatzen ziran, Linbora zoiazelu uste zalako. Eta bidalitako ume guztiak onartzen ziran! Elixiak indar haundixa zekan orduan!".

Konflantzazko

Bere lana partuan laguntzia zan arren, andra askok konfiantza haundixa zekan berakin, aholkua eskatzen zotsien eta bere sentimientuetaz berba eitxera be auzartzen ziran, ze "euren gauzatxuetaz inforekin berba eitxekotan amakin eitxen zebe. Gizonakin, oster, ezta okurridu bez! Niri gauza pertsonalak kontatzeko joeria zekan, akaso bazekizelako bixon artian geratuko



Bere instrumental izandako pintza, artazi, estetoskopio eta abarrok.

ziral, handik ez zebela urtengo!".

Apurka-apurka, lagatzen juan jakon etxietan umiak ekartze horri. Klinikiak erosotasuna zekan; ginekologua eta tokologua bertan eta, gauzak gaiztotu ezker, medixuak. Gainera han egun batzuk eitxeko aukera be bazeken, etxera indartuta juan ahal izateko. Matildek be laga ein zotsan partuak asistitziari.

Ez dau sekula ahaztuko Matildek aitxa Manuelek esandakua ezkontzekotan zala eta bere lana ez zebala lagako esan zotsanian: "Ondo begintxantzen jata! Zuk dakazu soziedadiakin zor bat, ze harek euki dauz zurretako ospitalak, maternidadiak, esamiñatzeko unibersidadiak... Horrek zureta-

ko balixokuak izan dia eta zeozelan bueltau ein bihar dotsazuz. Emakumia zara eta irabazten badozu zeuk biharra einda, zeure poltsikuan dirua eukiko dozu eta horrek gauza asko eitxeko balixua emongo dotsu".

Beria dauanik eta ofiziozko ederrena dala erizten dotsa, ze diñuan modura "ez dago munduan gauza zoragarriagorik umia jaixotzen ikustia baino! Txilixoka eta burrukan, eta aah!, beste leku baten topatziak emoten dotsan inpresiñuaz, ustez kale- bota dozula eta aah! eta aah! Hori da gauza bat...! Neurri haundi baten, momentu hori bizi izateko aukeriagaitxik uste dot izan nazela matronia".

Estibalitz González

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM

ENTRESA INSTALATZAILA BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

Bitsi-denda Tailer propioa Erloju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com · joyeriasenen@gmail.com

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel.: 94 659 01 41 - 618 89 29 60
E-mail: info@enolimp.es
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

Horacio Decoración
VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIFERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

ERMUKO UDALEKO EUSKARA SAILAK PIPOPO LEHIAKETA ABIATU DU

XIII. Pipopo Lehiaketa martxan da, eta martxoaren 11 bitartean egongo da esaldi erromantikoak aurkezteko aukera. Parte hartu nahi dutenek euskara@udalermua.net helbidera bidali beharko dute euren proposamena, edo Udal Liburutegian dagoen kutxatxoan sartu.

PASEOLAGUN JARDUERA IPINIKO DA MARTXAN MARTXOAN



Egungo osasun-egoera kontuan izanda, Paseolagun jarduera abiatuko du Berbalagunek datorren hilean Ermuan zein Mallabian. Ordubeteko osteratxoak izango dira, euskara praktikatzeko helburua izango dutenak. Martxoaren 2an (18:30ean) eta 7an (10:00etan) burutuko dira aurrenekoak: Patxi plazatik irten, Errekaldeko bidea hartu, Berano auzoa zeharkatu eta Hanbreraino. Parte hartu nahi dutenek, aldezturik eman beharko dute izena (663 070 492 edo ermua_berba@aek.eus).

“Sólo son peces” film laburrak izendapena jaso du Goya sarietarako

Ana Sernak eta Paula Iglesiasek idatzitako eta zuzendutako “Sólo son peces” dokumentalak Goya saria eskuratzeko lehian parte hartuko du, martxoaren 6an. Lan horretan, Henar Echeverria ermuarrak ere parte hartu du, Arte eta Jantzien arduradun bezala. Henar



Echeverriak Arte Ederretako ikasketak egin zituen EHU (2015-2019), eta Zineko, telesailako eta telebistarako arte zuzendaritzako Masterra egin du Madrilgo Tai Eskolan (2019-2020).

Badihardugu Euskara Elkarteak 20 urte bete ditu

Deba eskualdeko euskara bultzatzeko erronkarekin sortu zen Badihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkarte 2001ean, eta kantuan ospatu dute euren 20. urtea. Eskualdeko euskalkien gaineko lan ugari kaleratu dituzte, besteak beste Ermua zein Mallabiko aditz-taulen liburuxkak. Dena den, herri-hizkera jasotzen eta beratu hedatzen egin dute ibilbiderik oparoena, eta 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiak Abbadia saria eman zion euren www.ahotsak.eus webguneari, egindako lan esker-ga aitortzeko asmoz. Taldearekin lotutako hainbat lagunek urteurrenerako prestatutako abestia kantatu dute, eta Youtubeko euren kanalean dago entzungai.

Microdeco enpresan akordio bat lortu dute

Microdecoko zuzendaritzaren eta enpresa-batzordearen arteko desadostasunak zirela-eta, otsaileko ostegunetan greba egitea erabaki zuten bertako langileek. Lanuztea eginiko lehen egunean, eta aurreikusita zizuzten beste bietara iritsi aurretik, ados jarri dira zuzendaritza eta enpresa-batzordea. Atzeratutako soldatak eguneratzea zen langileen eskakizuna eta horiek ordaintzeko konpromisoa hartu du enpresak. Eibarren 1963an sortu eta gaur egun Ermuan, baina Mallabiarekin mugan-mugan dagoen lantegi honek 140 bat behargin ditu, eta prezio handiko pieza txikien dekoletajea da bere ekoizpenaren ardatza.

Plan B
Coffee Lounge Gin & Beer

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi
Orain
KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu
943 17 69 76 ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
607 33 11 77 www.ferreteriaanboto.es

Desiak
PSIKOLOGIA
ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA
Nahia Rojo Bustinduy
Psikologoa eta Sexologoa
Hitzorduak: 688 85 18 95

“Taldean modu eraginkorrean lan egiten ikasten dugu, gero oso erabilgarria izango zaiguna bizitzako edozein esparrutan”

Julen Leturiondo (Eibar, 20 urte)
Ikus-entzunezko Komunikazioa
graduako 3. maila ikasten ari da
Mondragon Unibertsitatean,
Aretxabaletako campusean.

- *Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?*

Eibarren egin izan ditut orain arteko ikasketak. DBH eta Batxilergoko ikasketekin batera, musika ikasketak egiten nituen modu paraleloan. Beraz, esan genezake betidanik izan dudala musikarekiko zaletasuna.

- *Zergatik aukeratu zenuen Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua?, Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?*

Institutuko ikasketak bukatzeaz zeudenean, nik behintzat, oso bortitza ikusten nuen unibertsitateera salto egiteko une hori. Ez nekien zer gustatzen zitzaidan, eta nahiko galduta nengoela onartu behar dut. Hala ere, banekien komunikatzea, lan bisualak eta musika gustatzen zitzaizkidala. Honela, Mondragon Unibertsitatea etorri zitzaidan burura. Batez ere, bere filosofia eta lan egiteko erak erakarri ninduen.

- *Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?*

Beti esan izan da unibertsitateko bizitza onena dela, baina ez da beharrezkoa

unibertsitate batera joatea esperientzia on bat izateko. Ez gaitezen nahastu. Azken finean, unibertsitatea zure bizitzako une bat da, non heltzen hasten zaren. Ume txiki hori izateari uzten diozu eta ume handi hori izaten ikasten duzu. Gainera, zure bizitzan lan izango zaituzten jendea ezagutzeko aukera duzu. Gainera, lan-mudura gerturatzeko bide erakarri bat da. Beraz, ondo, oso ondo baloratzen dut orain arteko esperientzia.

- *Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?*

Hasieran esan dudana bezala, Fakultate honen metodologiak erakarri ninduen. Izan ditudan ikasketa metodologietatik, zalantza barik, hau da gehien gustatu zaidana. Lan karga banatzeko aukera ematen du, denbora zehatz batean, konpetentzia eta ikasketa-emaitza zehatz bat (edo batzuk) jorratzen baitituzu. Gainera, zabala da oso jorratzen diren ikasketak. Beraz, hainbat gauzari buruzko ezagutzarekin ateratzen zara lan-mudura.

- *Unibertsitateak zer da gehien gustatzen zaizuna?*

Unibertsitateak ematen digun malgutasuna izan da beti gehien gustatu zaidana. Ez dugu zertan egunero fakultatera joan behar, baina ez nahastu hau oporrekin. Egun hori klase presentzialik ez baduzu, lana dagoelako da. Eta normalean, lan hori taldeko lana izaten da. Talde-lana Mondragon Unibertsitateak nabarmenduko nukeen beste gauza bat da. Taldean modu eraginkorrean lan egiten ikasten dugu, gero oso erabilgarria izango zaiguna bizitzako edozein esparrutan.

- *Etokizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?*

Ez dakit zer gertatuko den hemendik urte batzuetara, baina nire ideia eta helburua ikasten jarraitzea da. Uste dut hemendik aurrera kultur munduan lan handia egin beharko dela sektore hau aurrera atera ahal izateko. Hau honela izanik, ikasketa artistikoagoa den zerbaitetan nire profila garatzea nahiko nuke. Bestetik, musika ikasten jarraituko dut, eta ahal bada, Euskal Herritik kanpo hauek denak egitea da nire asmoa.



Felipe Sahagún, artisaia:

“Ez nituzke lanak sekula salduko, balio handia dute niretzat”

Duela 9 urte Picassoren Gernika margolana erreproduzitu zuen Felipe Sahagún ermuarra zura erabilia. Erretiroa hartu ostean ekin zion zura lantzeari, Berrizen ikastaro bat egin eta gero, eta ordutik hamaika artelan egin ditu.

- 65 urterekin hasi zinen taillaketan, eta Gernikaren kopia batekin estreinatu zinen. Aurretik ezagutzarik zenuen?

Ez. Aita eta aitita aulkigileak ziren, baina ni ez naiz sekula horretan ibili, mekanikoa izan naiz. Berrizen oso irakasle ona izan nuen, baina gelako ikasle-taldetxo batekin zegoen beti, eta besteoi ez zigun jaramonik egiten. Haserre laga nuen ikastaroa, eta uste dut ondo etorri zitzaidala, gauzak nire kabuz egiten ikasi behar izan nuelako.

- Zenbat denbora eman zenuen Gernika lantzen?

Urtebete inguru, egunean 5 eta 8 ordu artean lan egiten. Etxean dudana Gernika alaba-

rentzat izango da, baina horrez gain beste bi pieza egin ditut, handiagoak, semeen etxeetan daudenak.

- Zer gauza gehiago egin dituzu?

Burutik pasatzen zaidana egiten dut: kutxak, lanparak, itsasontziak eta erlojuak, besteak beste. Palentziako herri batekoa naiz, Becerril de Camposekoa, eta bertako plazaren erreplika egin nuen duela urte dezentte. Orain Ermuko eliza egin nahi dut: Aspaldi hasi nintzen, eta laga, baina berriro ekin nahi diot.

- Erlojuetan eta itsasontzietan tartea egin diozu elektronikari ere...

Bai, itsasontziei argia ipini diet, eta lanparak led argie-



kin apainduta daude. Nik egindako gauzak ezin dira beste inon topatu, bakarrak dira, baina dagoeneko etxean ez daukat gauza gehiago jartzeko lekurik, ezta seme-alabek ere!

- Pentsatu duzu salgai jartzzea?

Ez, ezta pentsatu ere! Gernikaren truke 10.000€ emanda ere, ez nuke salduko! Ez dut esaten horrenbeste balio duenik, baina niretzako balio handiagoa du.

- Zein zuhaitzetako zura erabiltzen duzu lan egiteko?

Haritzarena batik bat, eta gartzainondoarena ere, gogo-

rrak direlako. Baina gero eta zailagoa da zura topatzea, ez daudelako kasik zurgin artisaia. Horien lana ezinbestekoa da, haiek lotzen dituztelako oholak bata bestearekin, zuk esandako lodierarekin, gero landu ahal izateko.

- Etxean egiten duzu lana?

Ez, ezinezkoa litzateke, kolpeka eta zarataka ibiltzen naizelako. Tailertxo bat daukat eta bertara joaten naiz, lasai egoteko. Han ditut nire erremintak: neurri askotako gubiak, trintxak eta mailuak.

Dorleta Vidal

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa

- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tallerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com



ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Julene Bouzo, kirolaria:

“Txapelketetan lasai nago, ez diot inori ezer erakutsi behar”

Gorako jauzien Euskadiko Txapelketa absolutua irabazi zuen urtarrilean Julene Bouzo ermuarrak Anoetako belodromoan. 1,70 metroko marka gainditzeak eman zion garaipena ezustean, bere marka pertsonala 4 zentimetrotan hobetuta. Martxoaren 6an eta 7an bere kategorian lehiatu beharko du, Donostian berriro ere.

- Zer sentitu zenuen Euskadiko Txapelketa irabazterakoan?

Ezin nuen sinetsi! 1,66 metroko marka nuen, eta 1,67ko listoa gainditzean izugarri poztu nintzen! 1,70ekoa ere lehenengoan gainditu nuen, sinestezina!

- Ez zenuen espero?

Inola ere ez! Berotze-ari ketetan 1,50eko listoa bota nuen, pentsa...! Burua argitzeko, belodromoari bueltak ematen hasi nintzen, korrika, eta emaitza onak heldu ziren gero! Entrenatzaile barrik joan nintzenez, aurkariak aholkuak eman zizkidaten, eta eskertzekoa da.

- Zure garaipenak oihartzun handia izan du?

Bai. Egia esan, harrিতa nago. Askotan izan naiz Euskadiko txapelduna nire kategorian, baina azken titulu honek sekulako oihartzuna izan du. Beharbada kategoria absolutuan izan delako, baina ez nuen horrelakorik espero.

- Txapelketetan nolabaiteko presioa igartzen duzu?

Ez, badakit etxekoan eta lagunaren babesa daukadala, eta horrek asko lasaitzen nau. Kirola egiten dut gustuko dudalako, ez inori ezer erakusteko, eta txapelketak entrenamendutzat hartzen ditut. Hala ere, orain Espai-



Julene Bouzo Durangoko Bidezabal Atletismo Taldeko kidea da.

niako bigarrena naiz, eta horrek presioa eragingo dit.

- Zein da jauzi on bat egiteko oinarria?

Lasterketa ona egitea ezinbestekoa da. Halaber, onartu behar dut nire altuerak (1,80 m.) eta fisiomiak (argala izatea eta hanka luzeekin) asko laguntzen didatela.

- Familiatik datorkizu kirola egiteko grina?

Bai, aita futbolaria izan zen, eta neba ere futboleko aritu izan da. Amak, aldiz, eskubaloian jokatzen zuen, eta ni ere eskubaloian hasi nintzen 7 urterekin. Eskubaloiko entrenamenduak bukatutakoan, atletismoko entrenamenduak ikustera joaten nintzen lagun batekin. Irene Pérez ikusten genuen gorako jauzia egiten, gustuko genuen, eta hurrengo urtean izena eman genuen lagunak eta biok. Gaur egun bietan aritzen naiz: atletismoan eta eskubaloian.

- Aukeratu beharko bazenu...

Askotan galdetzen didate! laz galdetuz gero, eskubaloia aukeratuko nuke %80an. Errotabarrin jokatzen dut, eta hainbatetan deitu naute



Bizkaiko eta Euskadiko selekzioetan jokatzen. Aurtun, koronabirusa dela-eta, geldialdi pilo bat egin behar izaten ditugu eskubaloiko entrenamenduetan, eta atletismoan sasoi nago. Beraz, gaur gaurkoz atletismoa aukeratuko nuke.

- Oso ezberdina da taldean edo bakarka aritzea?

Bai, taldean beste giro bat sortzen da, baina tira... Leire Gorritxategi xabalina-jaurtiztailearekin entrenatzen dut atletismoan, eta gure entrenatzailea den Lolo Garciarekin oso-oso gustura nago.

- Zein da zure helburua kirolean?

Orain arte bezala, kirolarekin disfrutatzen jarraitu nahi dut. Horrez gain, IVEF edo Fisioterapia ikasteko asmoa daukat, eta biak kirolarekin lotuta daudenez, nahiko nuke eskubaloiarekin eta atletismoarekin jarraitu.

Dorleta Vidal

Tasio eta Sabino



Maria Rosario Arrizabalaga Urreta, "Mariarro": Feminismoa eta Sahara bihotzean

Ermuan jaioa duela 71 urte. Lau neba-arreben artean zaharrena. 1960an hasi, eta gaur egunera arte militantzian murgildua, feminismoa eta Sahararen aldeko lanetan.

- Zer ikasketa egin zenituen?

Langile familia bateko alaba naiz eta, beka bati esker, Lan Batxilerra eta Administrazio ikasketak egin nituen Markinako monjeeen eskolan. Erljioko irakaslea Mikel Zarate izan nuen, eta harekin hasi nintzen justizia soziala lanetan.

- Eta zertan egin duzu lan urteotan?

Administrari bezala egin dut lan bizitza osoan. Urtebete eman nuen Unamunon (egungo Monroen), eta beste denak bankaren munduan. Dirua irabazteko tresna izan da lana niretzat. Nire benetako bizitza, militantzian egindakoa da.

- Gaztaroa nola gogoratzen duzu?

60. hamarkada gogorra izan zen, frankismoa puripurian, iraultza garaia zen:

langileen greba gogorak (tartean Bandasekoa), Vietnamgo Gerra, borroka soziala Hego-Amerikan, Afrikan, eta hemen ere, Burgo-seko prozesua... Gero Lemoizko zentralaren aurkako protestak... Kalea bizi-bizi zegoen!

- Noiz hasi zinen militantzian?

Aurreneko militantzia politikoa izan zen. ETaren V. asanbladatik Komunistak taldea atera zen, eta han hasi nintzen. Gero EMKn eta Zutiken. Goizean, lana; arratsaldean, klandestinitatean, panfletoak egin, mezuak zabaldu... Mugimendu sozialak ere martxan jartzen hasi ginen, eta auzoetako familien elkarteak ere abian jarri genituen.

- Atxilotu zintuzten noizbait?

Antolatzen genituen bileira eta ekintza guztiak ilegalak ziren eta, harrapatuz gero, kartzelara joateko arriskua zegoen. Zorionez zortea izan nuen.

- Politikan eman duzu noizbait pausorik?

Bizitzan eman ditudan pauso guztiak oinarri "politikoak" izan dituzte. Aurreneko hauteskunde demokratikoetan herri ordezkari-tza bat antolatu genuen

eta, hirugarren indarra izan arren, udal politikan jarduteaz gain, lan sozialean jarraitu nuen. Ondoren, 1987an, emakumez soilik osatutako lehenengo zerrenda batean joan nintzen, eta gutxigatik ez genuen ordezkari-tza lortu. Gerora izan nituen eskaintzak Udalera aurkezteko, baina ez nien baiezkorik eman. Partaidetzan oinarritutako demokrazian sinetsi izan dut beti, eta orain ere hala deritzot.

- Feminismora nola hurbildu zinen?

Nire oinarri politikoetan justizia soziala zegoen, eta 1975 inguruan feminismoari buruzko aurreneko komunikazioak eta mugimenduen berriak iristen hasi zitzaizkigun. Dena zegoen egiteko, lana eta ilusioa gainezka... Garai horretan sortu genuen Bizkaiko eta Ermuko Emakumeen Asanblada.

- Eta Sahararen aldeko mugimendua?

70. hamarkada zen. Saharak eta biok etsai bera geneukan aurrean: diktadura. Horrek gure posizioak hurbildu eta elkarlana ekarri zuen. 1975etik 1991ra arte gerran egon ziren, baina pixkanaka laguntza humanitaria, janaria, ondoren hango haurrak gurera ekarri... Pauso handiak eman dira urteetan. Sahara bihotzean daramat.

- Nola ikusten duzu feminismoa gaur egun?



Feminismoak ibilbide luzea egin duela uste dut. 1975ean dena egiteko zegoen, tartean dibortzioaren legea, baina hasierako aldarrikapen haiek lortzen joan gara pixkanaka. Oraindik asko falta da, baina badator gazte olatu indartsua. Mugimendu handiak egin dira, baina faltan botatzen dut militantzia jarraitua gogoeta taldeetan, agenda feminista bat helburu eta abarrekin.

- Eta Sahararen aldeko borroka?

45 urte daramatzate borrokan, eta Maroko okupatzen eta irabazten dabilela dirudien arren, ez da horrela. Saharrek aurre egin diote, aurpegia ematen segitzen dute, tinko. Garaipen diplomatikoak ere lortzen ari dira, izan ere, Afrikan estatu asko alde dituzte, Aljeriaz gain Nigeria, Hegoafrika... Azarotik gerran daude, baina baikorra naiz eta konfiantza dut irabazten ari direla eta beraien lurraldean libre biziko direla.

Asier Ibaibarriaga



Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

Drogeteniturrri, 297 zk.



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

San Pelayo Ikastetxeak zenbait ekintza antolatu zituen Bakearen Eguna ospatzeko asmoz

Urtarrilaren 30a Bakearen Nazioarteko Eguna izan zen. Egun hori ospatzeko asmoz, egoerari egokituta, San Pelayo Ikastetxean indarkeriaren kontrako asmoa adierazi zuten otsailaren 1ean, mailaz maila, txikienetatik hasita.

Alde batetik, Haur Hezkuntzako txikiek zenbait mural egin zituzten, haien eskuak erabiliz eta kolore ezberdinekin jolastuz, hezkidetzari keinu bat adieraziz. Beste aldetik, Lehen Hezkuntzako oso modu ezberdinetan adierazi zuten munduko bakea adierazteko grina, hala nola, abanikoak bezalako eskulanak sortu zituzten. Gainera, Bakearen Trena

sortu zuten, non haien arteko harremanak sendotzeko aukera apartak sortu ziren. Amaitzeko, sormenari aukera eman, zenbait ipuin idatzi zituzten, hizkuntzak lantzeko aukera izanik.

Bigarren Hezkuntzakoek ez zuten atzean geratu nahi izan eta, haien mailara egokituz, zenbait hausnarketa egin zituzten. Aldi berean, munduko elikagaien bankua sortu zuten, proiektu txiki baten forma hartu zuena eta, horrela, ikasgai ezberdinen arteko harremana sendotu ahal izan zuten.

Ikasle eta irakasleek egun ederra pasatzutela zalantzarik ez egoteko, ideia guz-



tiak batu eta bideo bat sortu zuten, eskolako webgunera igo eta familiek ikusteko aukera izan zezaten.

Hezkidetzarekiko konpromisoa

Urtero bezala, ospatu nahiko ez genituzkeen hiru data azpimarratu ditu ikastetxeak: Azaroaren 25a, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Eguna; Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna; eta Maiatzaren 17a, Homofobia, Transfobia eta Bifobiaren kontrako Nazioarteko Eguna.

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Egunean, gure eskualdeko



Artxiboko argazkia.

Izaro abeslari mallabitarraren *Libre* abestia aztertu eta gozatu genuen. Horri jarraipena emanez, datorren Martxoaren 8an, historian zehar oharkabean pasatu diren emakumeak ezagutu eta haien historia azalertzeko aukera izango dute ikasleek. Azpimarratu beharreko eguna izango da Maiatzaren 17a ere, egoeraren arabera kolokan izan daitezkeen zenbait ekintzen prestaketan ari dira eta.

Hiru egun horiez gain, urtean zehar hezkidetzaren inguruan beste zenbait ekintza proposatzen dira. Aurten esaterako, EHMAren eskutik, Batxilergoko ikasleek indarkeria sexualaren inguruko tailer batean parte hartu dute.

Familien formakuntzari garrantzia emanez

Familien ikasketa prozesua garrantzitsua dela azpimarratzen du San Pelayo Ikastetxeak. Horregatik, matematikan oinarritutako metodologia, idazmena eta irakurmena lantzeko aukera eskaini zaie familiei.

Formakuntza hauek on-line saioen bidez emango dira, bizi dugun osasun-egoera dela-eta.

Aberria

Aberria, herriarekin lotzen zuten Lauaxetak, Lizardik edota Orixek. Aberria eta herria, aberria batzuetan berria euskaldun zaharrentzako Joseba Sarrionandiaren ustez. Lehenagoko euskaldunek herria galdu arte ez zuten aberriaren beharrik izan-eta. Ruper Ordorikak argitaratu zuen diskan *Zu zara orain nahi dudan aberria*. Zein da gure aberria?

"Hurtzaroa da norberaren aberri libre bakarra" esan zuen Sarrik eta arrazoi izan zezakeen. Gaur, agian, esango balu, akaso planteatu beharko genuke zer den aberria, eta are gehiago, zer den libre izatea. Planteatzekoa litzake ere, haurra zer den. Edota nola izan beharko lukeen.

Sarrik aipatu zuen hurtzarook, gaurkoaren antzik badu?

Treanean zazpi urteko haurra izan dut gaur aurrean. Laguna agurtu du "astelehenera arte!". Ostirala da. Eseri eta amarekin hizketan jarri da. Ostiral arratsaldea da eta eskolatik irten eta futboleko entrenamendura joan ostean, ingeles klasea dauka jarraian. Larunbat goizean eskulana eta arratsaldean zinera doa aitarekin. Igandean, aldiz, aitonamonei bisita egin eta haiekin bazkalduko dute. Gogoratu da asteartean bidalitako ingeleseko etxeko lanak ez dituela egin. Agian, asteburua nolakoa duen ikusita, normala da astean zehar astirik eduki ez izana etxeko lanak egiteko. Baina tira, zirku bat irekitzeko gai izango da, dantza, antzerki, musika, futbol, eta hainbat hizkuntza ikasi eta gero. Edo agian denetik pixkat ikasita, ez da bat ere ondo menperatzeko gai izango.



Jon Saez

Trenetik irten eta elurra ari du, dena zuri zuri dago, baina azkenaldian ez dut elur panpinik ikusi. Non daude gaur egun elur panpinak? Agian elur panpinen armada sortzen daude ezkutuan eta, 2020koaren ostean, elur panpinen matxinada dator? Edo agian Sarrik hil zituen guztiak? Agian hori zen libre izatea. Eskolatik irten eta elur panpina egitea, putzu baten saltoka ibiltzea, erropak zikintzea amak etxean errieta egiteko beldurrik barik, etxera hiru ordu beranduago iristea aitak eretzainari deitu gabe, asteburuan lagunekin kalean jolastea inoren begiradaren menpe egon barik... haur izatea azken finean.

Non daude haurrak?

“ ... akaso planteatu beharko genuke zer den aberria, eta are gehiago, zer den libre izatea ”

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

ZERMIK
SISTEMA ELEKTRIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

mari
asun

LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

IZASKUN TXURRUKA

- *Umea zinenean, ile-apaintzailea izatea pentsatzen zenuen?*

Nik uste dut baietz. Lehengusina batek negozioia zuen, eta txikitan berari laguntzera joaten nintzen.

- *Zure negozioa zuk ireki zenuen?*

Bai. 15 urte nituela hasi nintzen Eibarko ile-apaindegi batean lanean, eta 30 urterekin nire ile-apaindegia ireki nuen hemen, Ermuan.

- *Urtarrilean erretiratu zara. Lana uzteak pena eman dizu?*

Bai, nire lana maite dut, gozamina iruditzen zait... Baina momentua heldu zait: adina eta egoera. Niretzako denbora izan nahi nuen, garrantzi handia ematen diot horri.

- *Erabakia hartzea zaila izan da?*

COVID-19aren egoera hau tokatu zait; hortaz, errazagoa izan da. Gizona ere duela urte eta erdi jubilatzen, eta erabakia hartzeko momentu egokia izan dela uste dut. Bizitzeko. Nahiz eta uste dudan orain arte ere oso ongi bizi izan naizela. Oso gustura egon naiz, bizitzako gauzarik garrantzitsuenetariko bat izan da nire lana. Zorionsua izan naiz, dedikazio handiarekin.

- *Etorkizun hurbilera begira, zer asmo duzu?*

Informatika ikasten hasi naiz, ikastaro bat bukatu



Duela 33 urte ireki zuen Izaskun Txurrukak bere ile-apaindegia Ermuan, eta aurten erretiratu da, 63 urterekin. 16 urtez bizi izan da Zaldibarren, eta jaioterrira itzultzea erabaki zuten gizonak eta biek orain dela urte eta erdi.

berri dut eta beste bitan izena eman dut. Berrikuntzatan eguneratu nahi dut, baita nire buruari denbora eskaini.

- *Erretiratu zarenetik ile-apaindegira joan zara?*

Bai, baina bi aldiz bakkarririk. Gehiagotan joango nintzateke, baina hori niretzako bukatuta dagoela pentsatu behar dut.

- *Zer nolako sentsazioa eman dizu beste aldean egoteak?*

Beste aldean egotea oraindik arraroa egiten zait, denbora gutxi igaro da, urtarrilaren 1ean utzi bainuen. Etapa berri batean nago eta bizitza gozatzeko da.

- *Bidaiazalea zara?*

Bai, asko gustatzen zait bidaiazalea. Munduko txoko eder asko ezagutu ditut: Asian, Afrikan, Estatu Batuetan eta Europan ere. Dena ile-apainketari esker. Nire lanak asko

eman dit: jende ezberdina ezagutu, kultura antzizak...

- *Eta zer irakatsi dizu bizitzak?*

Aberastasun pertsonal handia: inor ez dela beste inor baino gehiago. Tolerantzia irakatsi dit.

- *Irakurtzea edo zinea, zein nahiago?*

Biak gustatzen zaizkit, baina irakurtzen asko ikasten da, beraz, hori aukeratuko nuke.

- *Eguneko momentu bat...*

Esnatu eta jaikitzea.

- *Zer miresten duzu pertsona batengan?*

Egiazalea izatea.

- *Zerbait egin ez izanaren pena duzu?*

Ikasten bukatu nuenean, lanean hasi aurretik, bidaiatu ez izanarena. Geroa egin ahal izan dudana zerbait da, baina uste dut bidaia guztiak adin eta sasoi bakoitzean ezberdinak direla, eta garai hartan egin ez izanaren pena dut.

- *Zein da hartu duzun erabakirik zailena?*

Nire ile-apaindegia irekitzea agian. Zailagoa izan zen irekitzea, uztea baino; oso ongi joan da guztia. Agurra zoragarria izan da, eta jendea oso maitekorra: bezeroei erretiratuko nintzela esatean, denek izan zituzten esker oneko hitzak, lore eta guzti. Ederra benetan.

Irati Yarza

Proba-Leku
Ile-apaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
PLAN BABESERAKO
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGYAK
943 030 299

MALLABIA 1962

Argazki hau 1962 inguruan aterata dago, Goita auzoko eskola aurrean. Iñusiñako Jabier eta Julio Solozabal bertan ibili ziren eskolan.



ERMUA 1976



Felix Izagirre palistaren omenezko plaka Santixau egunez plazako frontisaren ondoan bistaratu zuteneko unea. Urtebete lehenago zendutako txapeldun handia omendu eta haren irudia jartzearena Fernando Akordaren ekimenez egin zen. Ricardo Iñurria, santurtziar eskultorea izan zen artelanaren egilea. Bere seme Luis Mari bertan zen eta baita horren Jose Mari Crespán laguna ere. Udala ordezkatzan, Ignacio Onandia alkatea eta Jaime González udaltzaina, galako uniformearekin jantzita. Eskaileraren behe aldean José Horna, eta eskultura bistaratzeaz Angel Junquera maisua arduratu zen. Felixen plaka oroigarria eusten zuen harlanduzko horma hilabete honetan bota dute, Erdikokaletik plaza



zara bitarteko pasabidea egiteko. Bilboko Deportivoaren sarreran irudien erreplika bat dago ikusgai.

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Eskuz egindako
terapietan adituak

ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.artrosermua.com

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

LAN BILA

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Orduka.
 ☎ 681 310 989.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.
 ☎ 632 044 001

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.
 ☎ 632 41 53 74.

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako, edo pertsona nagusiak eta desgaituak zaintzeko. Esperientziarekin. Lan externoa edo orduka.
 ☎ 617 67 49 27



Otsailaren 6an
 Zorixonak Dorita!!
 Zarena izaten segi luzaroan ta muxu haundi bat etxequon partez.



Otsailaren 27an
 Zorionak Jone! 10 urte, neska handi! Muxu handi bat guztion partez.



Martxoaren 1ean
 Zorionak etxeko gizon handiari!!! Zorionak Ander zure urtebetetzean 8 urte gure txapelduna!!!! Etxeko denon partez besarkada handi bat ta ondo pasa egune!!!!



Otsailaren 19an
 Zorionak Oihan!
 Bi kandela zure pasteltxoan, zu bai mutil handixa! Gozatu zure egunaz, txapelduna! Patxo eta besarkada erraldoia bat, Nahian partez bereziki! AMZ.



Otsailaren 3an
 Zorionak Aratz!
 2 urte! Oso ondo pasa zure urtebetetzean. Muxu handi bat familia guztiaren partez, eta muxu erraldoia Urkoren partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara:
drogeten@gmail.com

Azken eguna: **Martxoarean 17a.**

Enter
 INFORMATICA

SALMENTAK
 IRAKASKUNTZA
 ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
 943 17 90 37
 enter@informaticaenter.com

arral
 arral97.com

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goltondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
 telebistak,
 musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

ZINEA

Hilaren 6tik 9ra:
 "Noticias del gran mundo" +
 "El profesor de persa"

Hilaren 13tik 16ra:
 "Dating Amber" +
 "La chica del brazalete"

Hilaren 20tik 23ra:
 "Pequeños detalles" +
 "Entre nosotras"

Hilaren 27tik 30era:
 "Una joven prometedora" +
 "Y llovieron..."

Ermua Antzokian.
 19:00etan.

ZINE-KLUBA

Hilak 4:
 "Floreica"

Hilak 11:
 "Beginning"

Hilak 18:
 "Nuevo orden"

Hilak 25:
 "Del inconveniente de haber nacido"

Ermua Antzokian.
 19:00etan.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 7
Hilak 14
Hilak 21
Hilak 28
 Zehaztu gabeko filmak.
 Ermua Antzokian.
 17:00etan.

MUSIKA

Hilak 12:
 Kontzertua: Marwán.
 19.00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€



ERAKUSKETAK

Hilak 1etik 31ra:
 Kartelak: Martxoaren 8ko lehiaketara aurkeztutako lanak.
 Lobiano Kulturgunean.
 18:00etatik
 20:00etarta..

ANTZERKIA

Hilak 5: "
 ¿Qué fue de Ana García?",
 Pabellón ó Gazte konpainiaren eskutik.
 19:00etan.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 10€



BESTELAKOAK

Hilak 4:
 Dokumentalaren emanaldia eta hitzaldia:
 "Fabricando mujeres 2.0", SETEM Hego Haizearen eskutik.
 17:30ean.
 Lobiano Kulturgunean.




UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 6:
 Ipuin-kontaketa ingelesez.
 17:30ean.
 Lobiano Kulturgunean.

Hilak 13:
 Ipuin-kontaketa.
 17:30ean.
 Lobiano Kulturgunean.

Hilak 26:



Umeentzako ikuskizuna:
 "Amaren intxaurreak",
 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen eskutik.
 17:00etan eta
 19:00etan.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 6€

Patxi López

**TXINDURRI
 TALDEA
 Tokian
 tokiko**

**PRO
 arraindegia**

**ITSASKIAK
 ARRAIN FRESKOAK
 ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
 943 17 16 96
 ERMUA

**Infreñu
 Taberna**

Kardenal Orbe plaza
 943 174584
 www.infretaberna.com

ALBOKA

**MUSIKA
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

OINAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

irale
 Hortz Klinika
 Clínica Dental
 C/ Zeharkalea, 8
 48260 Ermua, Bizkaia
 Tel: 943 17 71 34

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

OSASUN GIDA

fisioterapia
 eta osteopatia
 zehntroa
aitziber

Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89

Sexto Centenario 13, behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

Zuri egokitzen
 den odontologia
 La odontología
 que se adapta a tí

SAN PELAYO
 HORTZ KLINIKA + CLÍNICA DENTAL

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04
 ✉ info@clnicasanpelayo.com
 📍 San Pelayo Zeharkalea 5
 48260 Ermua (Bizkaia)

FUB Mediku psikiatra · Psikosomatika
 Psikoterapia psikoanalitikoak

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
 Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
 furizar1@yahoo.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo
 688 63 28 76 telefonoetara
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera

ZukAldatu

Berton bertokoa eta sasoian sasoikoa -



Osasuna zure esku dago

aukeratu bertako elikagaiak

Sasoikoak

Agrokimikorik
gabeak

Tokiko
ekoizleen alde

Zukaldatu plaza - ERMUA
Torrekua 2, solairuartea

